

# INNOBASQUE BERRIKUNTZA TXOSTENA 2016

Zientzia, Teknologia eta  
Berrikuntzaren Euskal Sistemaren  
perspektiba konparatua  
eta pertzepzio analisia

**LABURPEN EXEKUTIBOA**

# Aurkibidea

Sarrera

p. 1

**00**  
p. 5 **IKUSPEGI**  
OROKORRA

**01**  
p. 7 **EUSKADI**  
LURRALDE  
**BERRITZAILEA**  
AL DA?

Euskal I+G+bren analisi konparatiboa

**02**  
p. 21 **NOLA HOBETZEN**  
DU **PRODUKTIBITATEA**  
**BERRIKUNTZAK?**

Indizea

**03**  
p. 24 **ZER DIOTE**  
**ADITUEK?**

Basque Innovation Perception  
(BIP)

**04**  
p. 28 **ARRETA**  
**PUNTUAK**

Eskerrak

p. 30

Innobasqueri buruz

p. 31

Jarduera

p. 32

# Sarrera

Innobasque Berrikuntza Txostena Euskadiko berrikuntzaren erreferentzia txosten izateko asmoarekin jai da, eta honen transformaziorako gaitasuna bilduko duen ikuspegi holistikoa eskaintzeko.

Txostenaren edizio hau, aldian behingo izaera duena, 2005-2014 epeari dagokion Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren (ZTBES) analisi konparatiboa da. Ikuspegi poliedrikoa eskaintzen du, estatistika eta makroekonomia ikerketak pertzepzio analisi batekin uztartzen dituena. Lan hau Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia

eta Berrikuntza Planak (ZTBP) Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren kargu utzitako ebaluazio eta monitorizazio funtzioaren baitan kokatzen da.

Neurtzen dena hobetu ezin denaren premisatik abiatuta, garrantzizkotzat jo da estatistika eta adierazle sendo eta internazionaliki konparagarrietan oinarritzea, erabakiak hartzen laguntzeko. Garrantzitsua da nabarmentzea txostenaren interpretazioa Euskadiko testuinguru sozioekonomiko eta politikoaren baitan egin behar dela.

Innobasque Berrikuntza Txostena 2016

honen lehen edizioak arreta puntuak identifikatzen ditu, Euskadiko zientzia, teknologia eta berrikuntza politiketan kontuan har daitezten. Aurreragoko ikerketa zehatzagoek elementu hauen kausa edo jatorrien ulermena abordatzea ahalbidetuko dute.

Gainera, Basque Innovation Perception (BIP) ikerketaren lehen edizioa du barnean, ZTBESko 300 profesional baino gehiagok osatutako taldearen parte-hartzeari esker egindako pertzepzio ikerketa. Profesional hauek I+G+b arloan esperientzia aintzatetsia dute eta enpresa, ikerketa, instituzio eta esparru sozialetako

Innobasqueko erakunde bazkideetako kide dira. BIP taldearen lan prozesuan inkesta bat eta emaitzen kontrastea burutu dira, taldeko lagin adierazgarri batekin.

2007an sortu zenetik, Innobasquek bere estatuetan ZTBESaren monitorizazio eta ebaluazioa definitzen du funtzio nagusietako bat bezala. 2011an, ELGAren eskutik, Innobasquek ZTBES ebaluatu zuen, inbertsioen eragin ekonomikoaren neurketa indartzea gomendatuz. Hala, 2013an Indizea argitaratu zen, Berrikuntzaren Euskal indizea, I+G+b arloan enpresen inbertsio pribatuak eta

hauek produktibitatean zuten eragina aztertzen zuen lurralde mailako lehen ikerketa, Nesta agenzia britainiarrak sortutako metodologiari jarraituz.

Innobasque Berrikuntza Txostena 2016 Indizearen eboluzio gisa jaiotako Txostenaren elaboraziorako Eustateko, Eurostateko, Europar Batzordeko, Ikerbasqueko, Eusko Jaurlaritzako, UPV/EHUko eta Innobasquek berak burututako estatistika nagusiak hartu dira iturri gisa.

Nazioarteko estatistika hauek ez dute egun berrikuntzaren ikuspegi

dimentsioaniztunik. Ondorioz, Innobasque Berrikuntza Txostenak dimentsio berriak landuko ditu etorkizuneko edizioetan, datu hauek eboluzioa jasan ahala.

Berrikuntzak Euskadiko hazkunde eredu elikatzen du, berrikuntzan lider diren lurraldeekin bat egin nahi duen herrialde aurreratua. Berrikuntza aurrerapenerako motor gisa ulertzen dugu, denon artean erronka sozial, ekonomiko eta ingurugirokoei aurre egiteko irtenbideak eraikitzeko.



oo  
••• IKUSPEGI  
OROKORRA

# Ikuspegi orokorra

## Euskadi, berrikuntza-gune

Europako Batzordeak Euskadi “berrikuntza-gune” lurraldetzat jotzen du, Estatuko autonomia-erkidego bakarra eta Europako hegoaldeko hiruretako bat baita berrikuntza altuko eskualdeen taldean. Krisi testuinguru batean, Euskadik bere posizioa mantendu du berrikuntza altuko eskualdeen taldearen baitan, inguruko eskualdeen garapen negatiboa alde batera utzita.

## Europarekin konbergentzia

Lortutako posizioa EB-28rekin buruturiko pixkanakako konbergentzia prozesu baten ondorio izan da, Innovation Union Scoreboardek biltzen duen bezala, 2010ean batez besteko komunitarioan %81etik 2015eko %91ra pasatu delarik.

## Esfortzuen geldotzea vs. emaitzen hazkundera

Konbergentzia hau moteldu egin da monitorizatutako azken bi urteetan (2013 eta 2014) gastua eta I+G langileak bezalako esfortzu adierazleetan, emaitzen adierazleek, batez ere esparru zientifikokoek, igotzen jarraitu duten artean.

## Enpresen bultzada nabarmentzen da

Enpresen sektoreko bultzada izan da konbergentzia prozesu hau lagundu duen faktore nagusietako bat, gastuaren eta I+G langileen bilakaerak adierazten duen bezala. Hala ere, enpresen sektoreko I+G jarduerak ez du UE-28ko hazkuntza erritmoa jarraitzen.

## Europaraino babes publiko gehiago errepresentatzen da

Aipatutako enpresen bultzadak administrazio publikoen babesa izan du, EB-28 baino neurri handiagoan finantzatu dutelarik enpresetako I+G (%17 vs. %7 UE-28 2012an).

## Berrikuntzaren ahultasuna I+Getik haratago


Jarduera berritzaileari dagokionean, Euskadin I+Getik haratago doan berrikuntzaren ahultasun erlatiboa nabarmentzekoa da, bai berrikuntza ez teknologikoa eta bai I+Gekoa ez den berrikuntza teknologikoa barne hartzen dituen.

## Berrikuntzaren ekarpen txikiagoa produktibitateari

Berrikuntzak Euskadiko enpresen produktibitatearen hobekuntzari egiten dion ekarpena herrialde garatuetakoa baino apalagoa izan zen 1995-2007 epean, ezin ukitzeko kapitalean enpresek egindako inbertsioa txikiagoaren eraginez (I+G, marketina, antolaketa, diseinua, softwarea, formazioa, etab.)

## Etorkizuneko pertzepzio baikorra

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemako aditu-taldearen pertzepzio analisiak egungo egoera onesten du (6,26 puntu 10en gainetik), berriki gertatutako bilakaera onesten duen bezala. Gainera, etorkizunarekiko baikor agertzen dira neurrian.




01  EUSKADI  
LURRALDE  
BERRITZAILEA  
AL DA?


Euskal I+G+bren analisi konparatiboa

Europar Batzordeak Euskadi *“berrikuntza-gune”* eskualdetzat hartzen du. Berrikuntza altuko eskualdeen taldeko kide den Estatuko komunitate autonomo bakarra da eta Europako Hegoaldeko hiruretako bat.

EUROPAKO ESUALDEEN SAILKAPEN MAPA,  
BERRIKUNTZA MAILAREN ARABERA



214  
EUROPAKO ESUALDEAK GUZTIRA



- BERRIKUNTZA MAILA +

*“Eskualderik berritzaileenak herrialderik berritzaileenetan daude, nahiz eta neurritzko berrikuntza duten herrialdeetan berrikuntza-guneak ere badauden: Piemonte eta Friuli-Venezia Julia Italian, Euskal Herria Espainian eta Bratislava Eslovakian”*

Iturria: EB. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2016.



Hala ere, Euskadi EB-28ko batez besteko maila baino beheragotik kokatzen da.



Euskadiren baldintza estruktural\* antzekoak dituzten eskualde europar gehienak ere berrikuntza altuko taldeko kide dira.

## EUSKADIREN POSIZIONAMENDUA ESTRUKTURALKI ANTZEKOAK DIREN ESKUALDEEN ARTEAN




(\* Baldintza soziodemografikoak, espezializazio ekonomiko, teknologiko eta enpresa egiturakoak, Orkestraren prozeduraren arabera, Navarro et al. (2014))

Iturria: EB. Regional Innovation Scoreboard (RIS)

Krisi testuinguru batean, Euskadik bere posizioa mantendu du, inguruko eskualdeen garapen negatiboa alde batera utzita.


## EUSKADIREN POSIZIONAMENDUAREN BILAKAERA



Iturria: EB. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2016.

Lortutako posizioa EB-28rekin buruturiko konbergentzia prozesu baten ondorio izan da, 2010ean batez besteko komunitarioan %81etik 2015eko %91ra pasatuz.


### IUS adierazlearen bilakaera (Ø, %; 2010-2015)




Iturria: Eustat. Berrikuntza Irizpideen Panela (IUS) 2015.

Joera hau moteldu egin da azken bi urteetan esfortzuaren adierazleei dagokionez, hala nola I+G barne gastuari...

Euskadiko eta EBeko I+G BPG barne gastua herrialde taldeen arabera, beren berrikuntza lidergoa kontuan hartuta IUS (%; 2005-2014)



Euskadiko I+G barne gastua gastu motako (M€; 2005-2014)




Iturria: Eustat. I+G inkesta; Eurostat. Statistics on R&D.



Kapitalaren gastuak %58,8 murriztu dira 2008-2014 epean.

... eta I+G pertsonalari dagokionez.

I+G pertsonala/populazio aktibo portzentajea  
Dedikazio Osoaren Baliokidetasunean (DOB)  
(% ; 2005-2014)




I+G pertsonala Euskadin  
(DOB, %; 2005-2014)

	2005	2008	2012	2014
I+G pertsonala (DOB)	12.506	15.373	18.682	18.535
Ikerlariak (DOB)	7.820	9.640	11.772	12.020
Doktoreak diren I+G pertsonalaren ehunekoa	%15	%15	%19	%20
Emakumeak diren I+G pertsonalaren ehunekoa	%32	%33	%35	%35


Iturria: Eustat. I+G inkesta; Eurostat. Statistics on R&D.

Emaitzen adierazleek igoerari jarraitu diote, bai zientifiko-teknologikoen (argitalpen zientifikoak eta patente eskaerak)...

Scopusen indexaturiko Euskadiko argitalpen zientifikoak Espainiako eta mundu osoko guztizkoarekiko (%; 2005-2014)




Europako Patenteen Bulegora (EPO) egindako patente europarren eskaerak, Euskadi, Espainia eta EB-28ko milioi biztanleko (#, %; 2005-2014)



Iturria: Ikerbasque. Euskadiko Zientziari buruzko Txostena 2015; Europako Patenteen Bulegora (EPO); Eurostat. Intellectual Property Rights y Population & Migration.

...bai ekonomikoek, maila teknologiko erdi-altu eta erdi-baxuetako sektoreen esportazioen hazkuntzan islatzen dena, adibidez.

Maila teknologikoaren arabera manu-faktura-industriako esportazio garbiak (esportazioak-inportazioak) Euskadin (M€; 2005-2014)




Iturria: Eustat. Kanpo merkataritzako estatistikak (ECOMEX)


Teknologia maila altuko Euskadiko manu-faktura-industria 2014ean izan zen lehen aldiz esportatzaile garbia.

Enpresa sektorearen bultzada izan da EB-28rekin konbergentzia erraztu duen faktore nagusietako bat, esfortzuaren adierazleek erakusten duten bezala.

Euskadiko I+G barne gastua funtsen jatorriaren arabera (M€, %; 2005-2014)



DOB pertsonal ikertzailea exekuzio sektorearen arabera (%; 2005-2014)



Iturria: Eustat. I+G inkesta; Eurostat. Statistics on R&D.




Prozesu hau moteldu egin da azken bi urte monitorizatuetan (2013 eta 2014).



Enpresen bultzadak administrazio publikoen babesa izan du, EB-28 baino neurri handiagoan finantzatu dutelarik enpresetako I+G.


Enpresetako I+G funtsen jatorriaren arabera Euskadin eta EB-28n  
(%; 2005-2014)



(\*) 2012. urtekoa da EB-28ri dagokion azken datua.

Iturria: Eustat. I+G inkesta; Innobasque, SPRI eta EGLS-EJ. 2014-2020 Koaderno Estrategikoa.


Enpresa elkarteen itzulkinen bilakaera europar programetan FP7 eta H2020n.




Nazioarteko finantziarioak pisu baxua du konparatiboki, nahiz eta, Horizonte 2020ko euskal parte-hartzearen lehen datuen arabera, hazkunde fasean egon.

Hala ere, euskal enpresetako I+G sektorearen jarduerak ez du EB-28ko hazkunde erritmoa jarraitzen...

Enpresen I+G barne gastua Euskadin eta EB-28n  
(M€; 2005-2014)




Enpresetako I+G BPGarekiko Euskadin eta EB-28n  
(%; 2005-2014)



Iturria: Eustat. I+G inkesta; Eurostat. Statistics on R&D.

...nahiz eta I+G egiten duten enpresa kopuruak gora egin duen.

Enpresek exekutaturiko I+G barne gastua enplegu mailarekiko Euskadin eta EBean (%; 2005 eta 2013)



I+G burutzen duten enpresen portzentajearen bilakaera taminaren arabera (#, %; 2008 eta 2014)

ENPLEGU GERUZAK	I+G burutzen duen enpresa kop.		I+G burutzen duen enpresa kop.	Existitzen den enpresa kopurua	2008-2014 bilakaera	
	2008	2014				
0 eta 49 enplegu arteko enpresak	928	1.097	+%18	-%14	😊😊	
50 eta 99 enplegu arteko enpresak	201	196	-%2	-%14	😊	
100 eta 249 enplegu arteko enpresak	169	163	-%4	-%11	😊	
250 enplegu edo gehiagoko enpresak	100	91	-%9	-%8	😞	
I+G enpresa unitateak	38	58	+%53		😊😊	
Enpresak (I+G enpresa unitateekin)	1.436	1.605	+%12	-%14	😊😊	

Euskal I+G+bren analisi konparatiboa




Iturria: Eustat. I+G galdetegia eta Jarduera Ekonomikoen eta Enpresa Demografiaren Zerrenda; Eurostat. Statistics on R&D.


**Hazkunda enpresa txikiagoetan bildu da, 250 enplegu edo gehiago dituzten enpresen kolektiboak pisua galdu duen bitartean.**

Jarduera berritzaileari dagokionean, enpresek EB-28koa baino maila baxuagoak dauzkate I+Gtik haratago dagoen berrikuntzan.


Berrikuntza teknologikoaren gastuaren banaketa 10 enplegu edo gehiago dauzkaten establezimenduetan motaren arabera Euskadin eta EB-28n (%; 2012)



10 enplegu edo gehiago dauzkaten establezimendu berritzaile ez teknologikoen ehunekoa tamainaren arabera Euskadin eta EB-28n (%; 2012-2014)



I+Getik haratago doan berrikuntzak berrikuntza ez teknologikoa eta I+G ez den berrikuntza teknologikoa (makineriaren, ekipoen, aurreraturiko hardware edo softwarearen eta produktu/prozesu berri/hobetuentzako eraikinen erosketa, kanpoko beste ezagutza batzuen eskuratzea, berrikuntza jardueretarako formazioa, berrikuntza merkatuetan sartzea, produkzio edota banaketarako diseinua eta beste prestakuntza batzuk) biltzen ditu bere baitan.




02  NOLA HOBETZEN  
DU PRODUKTIBITATEA  
BERRIKUNTZAK?


Indizea

Aurreko emaitzak berrikuntzak enpresa pribatuetako produktibitateari egiten dion ekarpenean nabarmentzen dira, Euskadin 0,5 portzentajezko-puntukoa izan zena. Balio hau apalagoa da 1995-2007 garaian garatutako herrialdeetako baina.

Indizea herrialdeko  
(1995-2007)



Indizearen eta bere osatzen duten kontzeptuen azalpen sinplifikatua




Iturria: Alberto Alberdi (OFS-EJ) (2015); Arturo Rodríguez et al. (UPV/EHU) (2015)



Indizeak berrikuntza esfortzua (inbertsioa ukitu ezinezkoetan edo I+G+ban) eta bere emaitzak, Faktoreen Produktibitate Osoaren efizientzia hobekuntzaren bitartez neurtuz, sintetizatzen ditu, Nesta agentzia britaniarraren metodologia jarraituz.

Ondorioz, ukitu ezinezko kapitalen metatzen den inbertsioak ekonomia aurreratuenen mailen azpitik egoten jarraitzen du.

Ukitu ezinezko kapitalaren stock osoa BEG pribatuaren arabera (%; 2010)



Iturria: Alberto Alberdi (OFS-EJ) (2015); Arturo Rodríguez et al. (UPV/EHU) (2015)



03 ZER DIOTE  
ADITUEK?

Basque Innovation Perception (BIP)



Basque Innovation Perceptionek (BIP), aurreko estatistika analisia osatzen duen Innobasqueko azterketak, 10etik 6,26 batekin kalifikatzen du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren (ZTBES) egungo egoera.



Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren pertzepzioa: BIP

03


Iturria: Innobasque. BIP Txostena 2016.



Innobasquek analisi hau 308 pertsonen osatutako aditu-taldearen parte-hartzeari esker egin du, I+G+ban adituak eta Innobasqueko erakunde bazkideetakoak direnak.

Aditu-taldeak hurrengoei lotutako lehentasunezko hobekuntza puntuak nabarmendu ditu: enpresa txiki eta ertainak, karrera ikertzaileako trebakuntza, finantziazio pribatua eta efizientzia.


ZTBESren indarguneak eta hobekuntzak aditu-taldearentzako garrantzia mailaren arabera (2016)



Iturria: Innobasque. BIP Txostena 2016.

Halaber, aditu-taldea neurrian baikorra da etorkizunarekiko: %60 baino gehiagok uste du hurrengo bost urteetan I+G+b inbertsioak urtero %1 eta %10 artean egingo duela gora.

I+G+b inbertsioaren hazkundearen perspektiba hurrengo 5 urteetan  
(%; 2016)



Iturria: Innobasque. BIP Txostena 2016.

 Iritzi hau bereziki hedatua dago kolektibo instituzionalean.



04 ARRETA  
PUNTUAK

Hurrengo arreta puntuen bitartez hausnarketa eskatzen duten gogoetak agerian jarri nahi dira, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren hobekuntzan laguntza emateko helburuarekin.

## 1.

2013 eta 2014 urteetako esfortzu eta emaitzen datuen arteko bilakaeraren desberdintasunak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema (ZTBES) bi egoera posibletan kokatzen du:

- efizientiaren hobekuntzaren aldi batean.
- gainbeheraldi baten hasieran, I+G+b jarduerako gastu eta emaitzen arteko aldi baterako desfasearen ondorio gisa.

Hala ere, BIP Aritu-Taldeak etorkizuneko eboluzioari buruz duen iritzia baikorra da nolabait.

## 2.

I+Gari dagokionean, hurrengo antzematen da:

- enpresen sektoreko I+G jardueran geldialdia.
- finantziario publikoaren beheranzko bilakaera.
- enpresa sektorean nazioarteko finantziarioaren hazkundera indartzeko beharra, azken bi urteetan Horizonte 2020 programarekin ekindakoa.
- ekipamenduetako inbertsioen pixkanakako murrizketa.

## 3.

Bestalde, I+Getik haratago doan berrikuntzan nolabaiteko ahulezia bat antzeman da, software, diseinu, marketin, formazio eta antolaketa aspektuei eragiten diena, eta Basque Innovation Perceptioneko aditu-taldeak nabarmenago jotzen duena enpresa txiki eta ertainen segmentuan.

## 4.

Emaitza zientifiko-teknologikoei dagokionean, azken urteetan ekindako nazioarteko patenteen hazkundera indartzeko beharrezana egiaztatu da.

# Eskerrak

Asko dira Txosten honetan elkarlanean aritu diren pertsonak, bai edukien sorkuntza prozesuan eta baita berauen egiaztatzean ere.

Innobasquek bereziki eskertu nahi ditu Alberto Alberdi, ekonomialaria Eusko Jaurlaritzan; Mikel Navarro, Deusto Bu-

siness Schooleko Ekonomia katedrarena eta Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikertzaile seniorra; Eustat, Euskal Estatistika Erakundea eta Naider txostenean dauden analisi anitzetako asko burutzen laguntzearen.

Innobasquek BIPEko aditu-taldea

osatzen duten 308 pertsonak ere eskertu nahi ditu.

Halaber, espresuki adierazi nahi diegu esker ona ekarpen txiki eta handiekin, esfortzu eta konpromisoarekin, euskal berrikuntzaren alde diharduten pertsona guztiei.

# Innobasqueri buruz

Innobasque irabazi asmorik gabeko eta onura publikoko elkarte pribatua da, 1.000 erakunde bazkide baino gehiagok osatua. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragile berezia da, Eusko Jaurlaritza berrikuntza politika berrien diseinu, inplementazio eta sustapenean laguntzen duena.

Elkarlanerako lan-sare sendoa osatzen du enpresa, instituzio publiko, eragile

zientifiko-teknologiko eta sozialek eratutako aliantza baten bitartez, denak batera belaunaldi oso batentzako proiektu bat eraikitzeko: Euskadirentzako desiragarria den etorkizunik onena.

2007an sortu zenetik, Innobasquek bere sortze-estatutuetan biltzen du bere funtzio nagusietako bat Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren monitorizazio

eta ebaluaziorako tresna izatea dela. Innobasque 2016-2020 Plan Estrategikoak zentzu honetan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako politiken laguntza estrategikoan Innobasquek duen rolaren indartzea azpimarratzen du, ZTBESaren ebaluazio sistematizatua eginez, nazioartean erreferentzia onenak dituzten metodologia homologagarrien aplikazioaren bitartez.

# Jarduera

## Innobasque ZTBESren ebaluazioaren arloan



2007ko uztaila

Innobasquen sorkuntza aliantza publiko-pribatu gisa, Euskadiren eraldaketa sustatzeko.



2007-2008

Lantaldeen martxan jartzea (i-taldeak), Euskadiko enpresen eraldaketan lagunduko duten ekimenak identifikatzeko.



2008-2010

i-talde baten martxan jartzea, 'Transformazio Ekonomiko eta Sozialerako Adierazleen Sistema' diseinatu eta implementatzeko.



2010-2011

Orkestrarekin batera 'Berrikuntza Adierazleak eta Benchmarking' liburuaren argitalpena, non ezin ukitzeko inbertsioak neurtu eta hauek hazkunde ekonomikoan duten eragina neurtzea gomendatzen zen.



2012-2013

Indizearen elaborazioa Innobasquen eskutik, lurralde mailan I+G+b arloan enpresen inbertsio pribatuak eta hauek produktibitatean zuten eragina aztertzen zuen lehen ikerketa, Erresuma Batuko Nesta agentziak sortutako metodologiari jarraituz.



2010-2011

Berrikuntzaren euskal lurraldeko sistemaren ebaluazioa ELGaren eskutik, non Euskadiko zientzia, teknologia eta berrikuntzen inbertsio, emaitza eta eraginaren neurketa indartzea gomendatzen zen.



2014

Euskadi 2020 ZTBPea ZTBESren ebaluazio prozesu formalia sartzeko, Innobasqueri egokitu zitzaiona.



2016

2016 Innobasque Berrikuntza Txostenaren elaborazioa.





**innobasque**

berrikuntzaren euskal agentzia    agencia vasca de la Innovación

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea  
Laida bidea, 203  
48170 Zamudio. Bizkaia

[www.innobasque.eus](http://www.innobasque.eus)